



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Berrizko Udala

Herritarren parte-hartzea sustatzea eta dinamizatzea helburu duten oinarrien aldaketa onartzea herritarren arlo bakoitzean ordenantzaren behin betiko onarpena.

Herritarren parte-hartzea sustatzea eta dinamizatzea helburu duten oinarrien aldaketa onartzea herritarren arlo bakoitzean ordenantzaren behin betiko onarpena

2026ko otsailaren 13ko 30.zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Herritarren parte-hartzea sustatzea eta dinamizatzea helburu duten oinarrien aldaketa onartzea herritarren arlo bakoitzean ordenantzaren behin betiko onarpena eta jendarean azaltzeko epea gainditu ondoren ez da erreklamaziorik aurkeztu:

Lehena: Herritarren parte-hartzea sustatzea eta dinamizatzea helburu duten oinarrien aldaketa onartzea herritarren arlo bakoitzean ordenantzaren behin betiko onarpena.

Bigarrena: Erabaki honen berri Udal kontuhartzaitzari jakinaraztea eta Bizkaiko Aldizkari ofizialean zen udal iragarki taulan argitaratzea.

Berrizen, 2026ko martxoaren 31n. — Alkatea, Rolando Isoird Refoyo

**DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK****Lehenengoa. — Xedea**

Oinarri hauek Berrizko Udalaren dirulaguntzen Plan Orokorrarekin lerrotuta daude, eta herritarren parte-hartzea sustatzea eta dinamizatzea dute helburu, Berrizko Udalaren oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

Berrizko udalerrian jardun nahi duten pertsona fisikoek, gizarte-erakundeek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek gauzatuko dituzte proiektuak.

Bigarrena. — Aplikatu beharreko araudia

Laguntzak, publikotasunaren, gardentasunaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipio orokorrekin bat etorritik emango dira, norgehiagoka-erregimenean, bat etorritik Berrizko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategiko indardunarekin xedatutakoarekin.

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritakoa beteko da. Horrez gain, 38/2003 Legearen araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta bere izaeragatik aplikagarri izan daitezkeen beste edozein arau-xedapen.

Hirugarrena. — Finantziazioa

1. Oinarri hauen babesean ematen diren laguntzak Berrizko Udalaren funts propioen kargura finantzatu dira.

2. Eman beharreko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuetan finkatutakoa izango da; berariazko lerro guztien aurrekontu-aplikazioetan eskuragarri eta atxikita dauden kredituen kargurako dirulaguntza gisa.

Laugarrena. — Eskabideak baloratzeko irizpideak

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 17.3.e artikuluan xedatutakoaren arabera, balorazio-irizpide objektiboak eta horien haztapena kontuan hartuta baloratu eta hautatu dira aurkeztutako eskabideak.

Deialdi honetan aipatzen diren dirulaguntzen ildo estrategiko bakoitzak, oro har, honako irizpide hauek baloratuko ditu:

1. Proiektuek behar bezala garatutako azken 5 urteetan izan duten jarraipena: 10 puntu, gehienez.

	Puntuak
1-2 urte	4
3-4 urte	5
5 urte edo gehiago	10

2. Kontsumo arduratsua bultzatzen badute edo ingurumena babestea eta errespetatzea lantzen badute: 10 puntu, gehienez.

	Puntuak
Produktu eta material jasagarriak erabiltzea: substantzia toxikorik ez dutenak eta ingurumenerako edo giza osasunerako kaltegarriak ez direnak; eta lehengai berriztagarriekin egindakoak (birziklatuak edo birziklagarriak).	2,5
Uraren eta energiaren kontsumoa aurrezteko dakarten teknikak edo produktuak erabiltzea	2,5
Ingurumen-kudeaketako sistemak ezartzea: jardueraren ingurumen-inpaktua minimizatzen eta jasagarria izaten saiatzea	2,5
Ingurumen-praktikak antolatzea eta horietan parte hartzea	2,5



3. Elkarteen, klubuen eta udalaren arteko lankidetzak, baterako proiektuak garatzeko: 10 puntu, gehienez.

	Puntu
Beste elkarte batzuk kontuan hartzea, beren proiektua aurrera ateratzeko	3
Beste elkarte batzuetako proiektuak aurrera ateratzen laguntzea	3
Udalarekin elkarlana jarduerak ezberdinetan.	4

4. Euskara proiektuan edo jardueran txertatzea, zuzenean nahiz zeharka: 10 puntu, gehienez.

	Puntu
Espedientea euskaraz tramitatzea	2,5
Agerpen, ekitaldi eta jardueretan euskara erabiltzea	2,5
2,5	5
Argitalpenak euskara hutsean egitea	5
Argitalpenak elebidun egitea	2,5

5. Berdintasun printzipioari erantzunez, elkartearen eta jardueraren helburu eta ekintzen artean genero ikuspegia, tratu-berdintasuna eta ikuspegi intersektzionala integratzea: 10 puntu, gehienez.

	Puntu
Jardueraren ezaugarriak, ordutegia, espazioa eta sarbideen irisgarritasuna emakume, haur nerabe eta emakume transexualen eskuragarritasunera egokitzeko jarduketak; eremu publikoetan beraien parte hartzea ahalbidertzeko.	2,5
Ordezkaritza orekatua edo elkartearen ordezkaritza orekatuta izateko konpromisua. Hau da, lau kideetik gorako antolakuntza-organoean, sexu bakoitzeko pertsonak gutxienez %40an egon behar dute ordezkatuta. Gainerakoetan, sexu bietako pertsonak ordezkatuta daudenean emango da ordezkaritza orekatua.	2,5
Jardueraren onuradunen sexuaren arabera banakaturako datuak, edota txertaturako berdintasun neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko adierazleak aurkezteko konpromisua.	2,5
Berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioaren, gizarte inklusibotasunaren eta kulturartekotasunaren balioetan irudi bat sustatzea: rol aniztasuna eta zaintza lanaren erantzukidetasunarekiko gizonen inplikazio erreala, sexua eta/edo genero identitateen aniztasuna eta kultur-aniztasunaren presentzia orekatua.	2,5

6. Jardueraren bideragarritasun ekonomikoa eta finantza-baliabideak lortzeko gaitasuna (aurrekontu osoaren eta eskatutako diru-laguntzaren arteko proportzioa): 10 puntu, gehienez.

	Puntu
0-%10 arteko autofinantziakzioa	1
>%10-%30 arteko autofinantziakzioa	3
>%30-%50 arteko autofinantziakzioa	6
>%50-%70 arteko autofinantziakzioa	8
>%70tik gorako autofinantziakzioa	10

Gainera, proiektu bakoitza oinarri espezifiko bakoitzean zehazten diren balorazio-irizpideen arabera ebaluatuko da.



Puntu guztiak batu ondoren, egindako eskaeraren harira, lortutako puntuazioaren arabera dirulaguntza portzentaia emango da. Laguntza guztien zenbatekoak aurrekontu-kredituak baino handiagoak badira, dirulaguntzaren zenbatekoa aurrekontuan dauden kredituaren proportzioan doitu da.

Hala ere, gutxienez 40 puntu lortu beharko dira jarduera diruz laguntzeko. Eskatzaileak puntuazio hori lortzen ez badu, eskabidea automatikoki baztertua izango da.

Bosgarrena. — Onuradunak

Honako hauek jaso ahal izango dituzte oinarri hauetan araututako dirulaguntzak:

- Pertsona fisikoak eta elkarteen erregistroan alta emanda dauden irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteak, baldin eta inskripzio hori eguneratuta badago dirulaguntzak eskatzeko unean.
- Dirulaguntzen xede izango diren arloekin zerikusia duten proiektuak edo jarduerak egitea. Era berean, dirulaguntza honen xede diren proiektuak egiteko eta proiektu horietan aurreikusitako helburuak betetzen direla bermatzeko behar beste baliabide eta gaitasun izatea.

Seigarrena. — Eskabideak eta aurkezteko epeak

Ezin izango da dirulaguntza bat baino gehiago eskatu proiektu berean.

Erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du dirulaguntzen lerro estrategiko bakoitzeko.

Eskabideak eta oinarri hauetan eskatzen diren gainerako agiriak hilabeteko epean aurkeztuko dira, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Era berean, iragarki-oholetan eta udalaren webgunean argitaratuko da.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan oinarrituta, pertsona juridikoak behartuta daude administrazio publikoekin harremanak izatea telematikoki (Pertsona Juridikoaren Ziurtagiri Digitala). Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedatutakoaren arabera, Administrazio Elektronikokoaren Bulegoan aurkeztu beharko dira eskabideak (www.berriz.eus/tramiteak)

Jarraian, aurkeztu beharreko dokumentazioa zehazten da. Dokumentazio hori PDF formatuan erantsi beharko da nahitaez, eta behar bezala sinatuta aurkeztu:

- 1) Elkartearen erregistro orokorreko inskripzio-ziurtagiria, gehienez ere 3 hilabeteko antzintasuna duena eskabidea aurkezten den egunean. Elkarreentzat bakarrik da nahitaezkoa.
- 2) Banku-kontuaren titulartasunaren ziurtagiria, eskabidea aurkezten den egunean gehienez 3 hilabeteko antzintasuna duena.
- 3) Eskabide-inprimakia (S1 eranskina), Udalaren webgunean eskuragarri dagoena, atal guztietan nahitaez bete beharrekoa izango da:
 - a) Proiektuaren aurrekontua, dokumentuan bertan ezarritako taulen arabera egina.
 - b) Eskabidearen autobaremazioa; bertan, eskatzaileak balorazio-irizpide bakoitzean haren iritziz dagokion puntuazioa adieraziko du. Fitxa hori kasuan kasuko teknikariak ebaluatuko du, eta erabakiko du eskatzaileak deklaraturako puntuazioak zuzenak diren ala ez.
 - c) Proiektuaren deskribapena, autobaremazioan adierazitako puntuazioa justifikatzen duten xehetasunak eta ebidentziak adierazita.
- 4) Memorian azaldutako argudioak hobeto justifikatzeko dokumentazio osagarria.

Ofizioz, honako baldintza/informazio hauek egiaztatu eta/edo espedienteari gehituko zaizkio, interesdunak berriaz kontrakoa adierazten ez badu:

1. Pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa
2. Toki-ogasunarekiko ordainketan egunean egotearen justifikazioa.



3. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko ordainketan egunean egotearen justifikazioa, baldin eta eskatzaileak, indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte Segurantzarekin obligaziozko harremana badu.

Berrizko Udalak, eskura dituen datuen bitartekotza-sistemen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden eskatzaileen datuei buruz, salbu eta berariaz aurka egiten badute; kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Era berean, erantzukizunpeko adierazpenean xedatutakoa bete beharko da, hau da:

- a) Ez egotea laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko debekuari buruz azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan jasotako ezein kasutan.
- b) Elkarreak edo pertsona fisikoak egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Estatuko Agentziarekiko eta Tokiko Ogasunarekiko zerga-betebeharrak.
- c) Udal-aurrekontuko dirulaguntza izendunen bidez diruz lagundutako proiektu bera ez izatea (hitzarmena indarrean ez dutenak izan ezik).
- d) Berrizko Udalak aurretik emandako dirulaguntzak justifikatu izana, dagokion deialdian ezarritako baldintzetan, edo, hala badagokio, funtsak itzuli izana.
- e) Ez egotea Berrizko Udalaren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeko desgaituta.
- f) Haurrak eta Gazteak Babesteko Lege Organikoan ezarritako araudia betetzea, eta ez izatea adingabeekin edo hurrekin jarduerak egiteko bateraezintasun- edo debeku-kausarik.
- g) Berrizko Udalean indarrean dagoen berdintasun-planari atxikitzea eta haren arabera jardutea, genero-berdintasunaren eta aniztasunaren ikuspegia txertatuta aurkeztutako proiektuarekin lotutako jarduketa guztietan.
- h) Datuen babesaren inguruko informazioa ezagutzen du eta baimena ematen du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eskatzaileak konpromisoa hartuko du eskabidea sinatzean baldintza horiek betetzen jarraitzeko laguntza baliatzeari dagokion denbora-tartean, eta inguruabarretan izandako edozein aldaketaren berri eman beharko dio organo instrukzio-egileari.

Zazpigarrena. — Instrukzioa

Berrizko Udalak antolatuko eta izapidetuko ditu espedienteak, prozedura honen arabera:

1. Eskabideak jasotzea

Arloak egiaztatuko du aurkeztutako eskabideak oinarri hauetan ezarritako betekizunekin bat datozela, honako alderdi hauei dagokienez:

1. Eskabidea garaiz eta behar bezala aurkeztu dela.
2. Dokumentazioa, inprimakiarekin batera, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera osatuta dagoela.
3. Erakunde eskatzailea Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dagoela.
4. Zerga Agentziarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Berrizko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

Eskabideak ez baditu betetzen oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta adieraziko zaio hori egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Aurrekoari kalterik egin gabe, prozeduran zehar edozein unetan eskatu ahal izango zaio erakunde eskatzaileari bete gabe utzitako edozein izapide bete dezan, Administra-



zio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 73. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz. Horretarako, 10 egun baliodun emango zaizkio dagokion administrazio-egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta berariaz ohartaraziko zaio eskabidea bertan behera uzten ez bada, eskabidea egin ahal izango zaiola.

2. *Eskabideak ebaluatzea*

Eskabideak jasotzeko epea amaitu eta gehienez ere 30 eguneko epean, arlo bakoitzeko teknikariek aurkeztutako proiektu guztien balorazio-txostena egingo dute. Txosten horretan, honako hauek adieraziko dituzte, arrazoituta: eskatutako dirulaguntza ematea komeni den ala ez, esleipen-irizpideen eta emakidaren baldintzen arabera lortutako puntuazioa, eta emateko edo ukatzeko proposamena organo eskudunari aurkeztuko diote, eta, hala badagokio, ukatutako eskabideak arrazoituko dituzte.

Zortzigarrena. — Ebazpena

Organo eskudunak dirulaguntzak emateko ebazpena emango du, Arloak egindako proposamen-txostenaren arabera. Dirulaguntza emateko ebazpena udalaren web-orrian argitaratuko da, onuradun bakoitzari banan-banan jakinaraztearen kalterik gabe.

Emandako ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa edo berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari berari. Berraztertze errekurtsioa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako lekuetan aurkeztu ahal izango da.

Bederatzigarrena. — Ordaintzeko modua

Laguntzak %80an ordainduko dira behin-behineko dirulaguntza emateko egintzan, eta gainerako %20 dirulaguntza justifikatu ondoren, teknikariak alde aurretik txostena emanda eta gehienez ere 30 eguneko epean justifikazioa egiteko azken egunetik.

Hamargarrena. — Justifikazioa. Dokumentazioa

Proiektuak gauzatu izana prozeduraren instrukzio-organoaren aurrean justifikatuko da. Deialdiaren hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen, eta nahitaez honako agiri hauek aurkeztu beharko dira PDF formatuan eta behar bezala sinatuta:

- 1) Justifikazio-orria (J1 eranskina), Udalaren webgunean eskuragarri dagoena, atal guztietan nahitaez bete beharrekoa izango da:
 - a) Gastuen eta diru-sarreraren zerrenda, emandako ereduaren arabera, eta diru-sarreraren gastuen balantzea, gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta, eranskineko taulen arabera.
 - b) Egindako jardueraren edo proiektuaren memoria.
- 2) Gastuen egiaztagiriak. Gastuak justifikatu beharko dira, zeharkako gastuei dagokien zenbatekoa izan ezik (gehienez, aurkeztutako aurrekontuaren zuzeneko gastuen %15), jardueraren gastuaren zenbatekora arte, dokumentuak aurkeztuta. Edonola ere, Udalak egindako gastu guztien justifikazioa eskatu ahal izango du.

Gastuen egiaztagiri gisa, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

1. Fakturak. Honako datu hauek jaso beharko dituzte:
 - a) Faktura-zenbakia.
 - b) Faktura-data
 - c) Identifikazio osoa (izen-abizenak, erakundearen izena eta helbidea), bai faktura egiten duenarena, bai faktura jasotzen duenarena.
 - d) Egiten duenaren eta faktura jasotzen duenaren IFK edo NAN.
 - e) Jardueraren edo zerbitzuaren deskribapena.
 - f) Zergapeko kuota eta BEZ.



- g) BEZaren salbuespenaren kasuan, fakturan salbuespenaren arrazoia azalduko da.
2. Faktura sinplifikatuak, zenbatekoa (BEZ barne) 400 eurotik beherakoa denean.
 3. Aseguru-polizen ordainagiriak.
 4. Aurkeztutako fakturei dagozkien ordainagiriak. Transferentzia, banku-ordainagiri edo faktura benetan ordaindu dela egiaztatzen duen beste edozein bide.

Ez dira diruz lagunduko proiektua gauzatzearekin zuzenean lotuta ez dauden gastuak. Honako hauek sartzen dira, besteak beste:

- a) Zuzendarien, klubeko langileen edo elkartekideen bazkariak edo arretak.
- b) Opariak eta antzeko arretak.
- c) Diruz lagundutako proiektuko jarduerekin lotutako edo lotu gabeko edozein gastu pertsonal.

5. Diruz lagundutako jardueraren inguruan argitaratzen den publizitate-elementu bakoitzaren ale bat (kartela, liburuxka, triptikoa...) entregatzea, eta, liburu bat editatuz gero, ale bat (pdf formatua) aurkeztea. Aipatutako elementu horietan berariaz adierazi beharko da Berrizko Udalaren babesa.

Aurrekoa gorabehera, erakunde edo pertsona onuradunek Udalak eskatzen dien dokumentazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute, dirulaguntza zertarako erabili den behar bezala egiaztatzeko.

Oinarri honetako aurreko ataletan aipatzen den dokumentazioa aztertuta, izandako gastuen gaineko gehiegizko diru-sarrerak sortzen badira, erakunde edo pertsona onuradunari eskatuko zaio ateratzen den zenbatekoa itzul diezaiola Udalari. Soberan jasotako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira.

Jarduera edo proiektua justifikatu ezean, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

Hamaikagarrena. — Justifikazioa. Onarpena

Organo eskudunari dagokio funtsen aplikazioaren justifikazioa onartzeko eskumena, arloko teknikariak proposatuta.

Hamabigarrena. — Erakunde edo pertsona onuradunen betebeharrak

Laguntza hauen erakunde edo pertsona onuradunek deialdi honen edukia eta horren emaitza onartzeko konpromisoa hartzen dute, bai eta betebeharrak hauek betetzeko ere:

1. Laguntza ematea oinarritzen duen proiektua gauzatzea, laguntza-eskabidearekin batera aurkeztutako memorian agertzen den moduan.
2. Emandako laguntza justifikatzea, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.
3. Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen egiaztapen-jarduerak, udal-kontuhartzaitzari dagozkion finantza-kontrollekoak eta Kontu Auzitegiaren legerian aurreikusitakoak onartzea, eta haiei helaraztea horretarako eskatzen zaien informazio guztia.
4. Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, horren berri idatziz ematea dirulaguntza eman duen organoari. Jakinarazpena horren berri izan bezain laster egin beharko da, eta, nolahi ere, dagokion teknikariak egindako esleipen-proposamena aurkeztu baino lehen.
5. Diruz lagundutako jardueraren garapena aldatzen edo zailtzen duen edozein gorabehera berehala jakinaraztea. Eta diruz lagundutako proiektua egiten ez bada, Udalari jakinarazi beharko zaio.
6. Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuta edukitzea, onuradunari aplikatu dakioken legeriak eskatutako baldintzetan, eta jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan daitezkeenean.



7. Proiektua gauzatzean, proiektua Berrizko Udalak finantzatzen duela zabaltea. Horretarako, diruz lagundutako proiektua hedatzeko erabiltzen diren material guztietan, modu ikusgarrian, Berrizko Udalaren logoa sartu beharko da, laguntzaren jatorria identifikatu ahal izateko, formari, testuari eta koloreei dagokienez haren diseinua errespetatuz.
8. Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez jizkera ez irudi sexistarik.
9. Adingabeok parte hartzen duten jardueretan, entitate onuradunak parte hartzen duten langile eta bestelako bolondresen Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiko ziurtagiri negatiboak lortu beharko ditu.

DLOren 85. artikulua araber, organo emaileak onuradunen ausazko lagin baten gaineko ikuskapenak egiteko eskubidea gordetzen du, diruz lagundutako jarduera egin dela eta emandako laguntza behar bezala zabaldu dela materialki egiaztatzeko.

Jasotako zenbatekoaren itzulketa, hala dagokionean, DLOren II. tituluan eta DLOren III. tituluan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Hamahirugarrena. — *Finantza-egiaztapena eta -kontrola*

Diruz lagundutako jarduerak Udalak eta Udalaren Kontu-hartzaitza Nagusiak egiaztatu eta kontrolatu ahal izango dituzte, edozein fasetan. Erakunde onuradunak ekintzaren tokirako sarbidea erraztu beharko du, eta jarduera horiek gauzatzeko eskatzen zaion dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Finantza-kontrolaren helburua izango da egiaztatzea funtsak behar bezala lortu direla, jasotako funtsak aplikatzean betebeharrak bete direla eta diru-laguntza behar bezala justifikatu dela.

Adierazitako betebeharrak ez betetzeak, bai eta DLOren 37. artikuluan eta DLOren 91etik 93era arteko artikuluetan ezarritako gainerako kasuetan ere, jasotako zenbatekoak itzultzea ekarriko du, bai eta diru-laguntza ordaintzen denetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte dagokion berandutze-interesa eskatzea ere.

Ez-betetze partzialen kasuan, itzuli beharreko zenbatekoa finkatzeko, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, baldin eta egindako jarduera nabarmen hurbiltzen bada erabat betetzera, eta onuradunek argi eta garbi egiaztatzen badute beren konpromisoak betetzeko jardun bat egin dutela.

Hamalagarrena. — *Beste udal-laguntza batzuekiko bateraezintasuna*

Laguntza horiek bateraezinak dira Udalaren beste linea batzuetatik proiektu horretarako jasotakoekin, baina bateragarriak dira beste erakunde publiko eta pribatu batzuek eman ditzaketenekin, baldin eta proiektua egiteko bideratutako aurrekontu osoa gainditzeko ez badute.

Hamabosgarrena. — *Datu pertsonalen babesa*

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datuak babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikulua araber, emandako datu pertsonalak eta espedientea osatzeko ondoren eskatzen direnak Berrizko Udalaren titulartasuneko fitxategi batean sartu ahal izango dira. Datuak bidalita, berariazko baimena ematen da datu horiek tratatu ahal izateko, betiere Udalaren berezko helburuak betetzeko. Era berean, jakinarazten da datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta ezerezteko eskubidea baliatu ahal izango duela Berrizko Udalari idatziz jakinarazita.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskaera horretan jasotako datuak Berrizko Udalari lagatzea onartzea, estatistika, ebaluazio eta jarraipena egiteko eta Udalak diruz lagundutako programak jakinarazteko.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua betetzeko, diru-laguntza emateak berekin dakar zerranda batean sartzea. Ze-



rrenda hori elektronikoki edo beste edozein bidetatik argitaratuko da, eta bertan pertsona eta erakunde onuradunak eta laguntzaren zenbatekoa agertuko dira.

Hamaseigarrena. — Araubide juridikoa

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako, eta oinarri horien interpretazioari dago-kionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta aplikatze-koa den gainerako araudian xedatutakoa beteko da.

Oinarri hauek onartzen dituen ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean.

Era berean, oinarri hauen aurka aukerako berraztertze-ko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, oinarri horiek onartu dituen organo berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Hamazazpigarrena. — Erantzukizuna eta zehapen-araubidea

Laguntza hauen erakunde edo pertsona onuradunek DLOren IV. tituluan ezarritako dirulaguntzen arloko zehapen-araubidea bete beharko dute. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Zehatzeko Ahala Jarduteko Prozeduraren Erregelamenduan (abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren bidez onartua) jasota geratuko dira.

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNAREN ARLOAN
DIHARDUTEN PERTSONA FISIKOENTZAKO ETA ELKARTEENTZAKO
DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILE ESPEZIFIKOAK****1. Xedea**

Arau hauen xedea emakumezko eta gizonezkoen aukera berdintasuna indartzera zuzendutako jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da. Hain zuzen, edozein eremutan emakumeen parte hartzea, horiei informazioa eta aholkularitza ematea sustatzen duten jarduerak direnean, aukera berdintasunari eta emakumeen ahalduntzea lortzeari buruzkoak direnean, eta gizarte osoari begira, kontzientzia hartzea bultzatzen duten jarduerak direnean ere.

2. Onuradunak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradun izan daitezke, Berrizko dirulaguntzen plan estrategikoarekin eta deialdi honen oinarri orokorrekin bat datozenak. Hain zuzen ere, Berrizko udalerrian emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala sustatzeko jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko eta gizarte erakundeak.

3. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak eta programak

3.1. Dirulaguntza honen xedea da, ondorengo programa eta jarduera hauek finantzatzea:

- a) Emakumeen ahalduntzea eta haien autonomia, independentzia eta garapen integrala bultzatzeko helburua dutenak, batez ere diskriminazio anizkoitza edota gizarte bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeen ahalduntzea.
- b) Berdintasunaren aldeko prestakuntza-ekintzak, hainbat alorretan: kulturean, osasunean, kirolean, gizarte-partaidetzan eta abarretan, eta, batez ere, Berrizko elkarteetan genero ikuspegia txertatzea xede dutenak.
- c) Emakumeek bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte hartzea sustatzeko helburua duten jarduerak eta programak, bereziki diskriminazio anizkoitza edota gizarte-bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden emakumeak kontuan hartuta.
- d) Emakume eta gizonen arteko berdintasunari eta sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzeari buruzko sentsibilizazioa eta informazioa zabaltzeko jarduerak.
- e) Emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurrea hartzeko eta hura erroetik ezabatzekeo jarduerak. Emakume izateagatik soilik, emakumeen kontrako indarkeria matxista orok barne biltzen du, neska txikien, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten dena.
- f) Indarkeria matxistaren biktimei zuzendutako jarduerak, ikuspegi erreparatzailetik.
- g) Emakumeen eskubideak aitortzeko eta hedatzeko jarduerak.
- h) Sexu edota genero identitatea eta orientazio sexuala askatasunez garatzeko eskubidea aitortu eta zabaltzeko jarduerak.
- i) Emakumeek, emakume-taldeek eta mugimendu feministak historian zehar eta gure egungo gizartera arte egindako ekarpenak aitortzeko eta berreskuratzeko helburua duten jarduerak.
- j) Gizonek berdintasunaren aldeko lanean duten konpromisoa sustatzea xede duten sentsibilizazio-, prestakuntza- eta informazio-jarduerak, bai eta gizonen erantzunkidetasuna etxeko eta zaintzako zereginetan, lanean eta etxeko balio aldaketa eta rolak zein estereotipoak ezabatzea sustatzea xede dutenak ere.
- k) Diruz lagunduko zaie gizon eta emakumeen benetako berdintasunaren eremuan Berriz lan egiten duten taldeei eta talde horietako pertsonari, prestakuntza ikastaroetan, mintegietan eta kongresuetan parte hartzen dutenean, betiere horiek aukera berdintasunarekin lotuta badaude.



- l) Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko elkartegintza sustatzeko helburua duten jarduerak eta programak.
- m) Elkartearen jarduera arruntaren mantentzea.
- n) Salbuespenez, Berrizen sustraiturik dauden ikuskizunak, ospakizunak eta urteurrenak antolatzea ere diruz lagundu daiteke.

4. Eskakizunak

4.1. Proposatutako jarduera edota programek, dirulaguntzak jaso ahal izateko, honako eskakizun hauek bete behar dituzte:

- a) Berdintasuna sustatzeko programek eta jarduerak bat etorri behar dute Berrizko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Planaren esparruarekin edota EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin.
- b) Programa eta jarduera horiek Berrizko Udalak sustatutakoen osagarriak izanen dira.
- c) Deialdi honetako hirugarren oinarrian aipatzen diren jardueretako batekin bat etortzea. Horrela ez bada, diru-laguntzaren xedearekin bat ez datozen guztiak baztertuko dira.

5. Eskabideak baloratzeko irizpideak

Oinarri orokorretako laugarren ataleko balorazio irizpidez gain, berdintasun arloko deialdian aurkeztutako proiektuak berariazko irizpide batzuen arabera baloratuko dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Proiektua testuinguruan kokatzea	Gehienez 10 puntu
Aldez aurreko azterketa egitea dagoen beharrei eta proiektuaren justifikazioa.	7,5
Berrizko errealitatera egokitzea.	2,5

2. Egitasmoaren helburuen interesa	Gehienez 5 puntu
Berrizko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Planaren helburuekin bat etortzea eta EAEko Emakumeen edota Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren jasotako helburuekin bat etortzea.	5

3. Ekintzaren eragina, onuradunak eta esperotako emaitzak bere eragin-eremuan eta, bereziki, Berrizen.	Gehienez 10 puntu
Aurre ikusitako eragina, kuantitaboa zein kualitatiboa.	7,5
Programek eta jarduerak sor ditzaketen emaitza interesgarriak	2,5

4. Proiektuaren kalitate teknikoa	Gehienez 10 puntu
Proposamenaren egokitasuna	3
Metodologia	3
Ekintzak aurrera eramateko entitatearen baliabide pertsonalak eta materialak antolatu eta erabiltzea.	3
Izaera berritzailea	1

5. Emakumeen partaidetza sustatzeko estrategiak diseinatu eta garatzea.	
Desberdintasun handiagoko baldintzetan egon litezkeen emakumeen parte hartzea indartzeko neurri espezifikoak jarri.	2,5



6. Taldean edo sarean egiten diren proiektuak eta prozesuak.	
Berdintasunaren alde esperientziak trukatzeko balio dutenak.	2,5

6. Eskabidearen balorazioa

Berdintasun arloko teknikariak egingo du balorazioa eta dirulaguntza proposamena.

**HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILE ESPEZIFIKOAK****1. Xedea eta irizpide arautzaileak**

Berrizko Udalak, dirulaguntzak emanez, irizpide arautzaile gisa balioko duten, helburu hauek lortu nahi ditu:

1. Berrizko haurren eta gazteen aisialdi hezigarria sustatzea.
2. Eskolako programazio orokorraren jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpoko jardueren antolaketan laguntzea.
3. Gurasoak eta tutoreak hezteko jarduerak edo gurasoen eskoletarako jarduerak antolatzea.

Ez dute dirulaguntza xederik izango jarduera edo kontzeptu hauek:

- 1) Azpiegiturako obrak, inbertsioak, ondasun higiezinak erostea; eta altzariak eta ekipamendua (altzariak, elektrotresnak, argazkizkoa, informatikoa) erostea.
- 2) Udalaren iritziz beste laguntza programa batzuetan hobeto egokitzen diren dirulaguntzak.

2. Onuradunak

Berrizko dirulaguntzen plan estrategikoarekin eta deialdi honen oinarri orokorrarekin bat datozenak eta Berrizen egoitza duten eta hezkuntza arloan jarduerak garatzen dituzten elkarteak, klubak; edo hezkuntza arloan ekimenak garatzen dituen edonor.

3. Balorazio irizpideak

1. Proiektuek eta jarduerak aniztasuna edozein mailatan sustatzen badute	Gehienez 15 puntu
Ezintasun fisikoak, psikikoak edo kognitiboak sortutako mugak gainditzea kontutan hartzea	5 puntu
Egoera sozio ekonomikoak eragiten duten mugak kontutan hartzea	5 puntu
Kulturartekotasuna kontutan hartzea	5 puntu
2. Autonomia eta garapen pertsonala bultzatzen badute	Gehienez 5 puntu
Jarduerak erabakiak hartzea eskatzen dute	2,5 puntu
Jarduerak ardurak hartzea eskatzen dute	2,5 puntu
3. Osasun ohitura egokiak sustatzen badituzte	Gehienez 10 puntu
Osasun ohitura egokiak sustatzen dituzte (jarduera fisikoa, elikadura heziketa, estresa bideratzeko jarduerak ...)	10 puntu
4. Sormena garatzea bideratzen badute	Gehienez 5 puntu
5. Jarduera, proiektu edo ekintza berritzaileak; ekarpen aberatsa eta anitza egiten diotenak	Gehienez 5 puntu

4. Eskabidearen balorazioa

Kirol saileko teknikariak egingo du balorazioa eta dirulaguntza proposamena.

**JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN
OINARRI ARAUTZAILE ESPEZIFIKOAK****1. Xedea eta irizpide arautzaileak**

Berrizko Udalak, dirulaguntzak emanez, irizpide arautzaile gisa balioko duten, helburu hauek lortu nahi ditu:

1. Udalerrian jarduera fisikoaren eta kirolaren praktika sustatzea.
2. Kirol-erakundeei euskarria ematea eta tokiko kirol-sistemaren egituraketa indartzea.
3. Emakumeei eta adinekoei zuzendutako kirol-jarduerak sustatzea, horiek kirolean gero eta parte-hartze aktiboagoa izateko.
4. Behar bereziak dituzten pertsonen gizartean integratzen laguntzea, jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez.
5. Herritarrek planteatutako beharrei erantzuten dieten Udalerriko kirol-erakundeak sendotzen laguntzea.
6. Herriarentzat estrategikoak diren kirol-ekitaldiak egiten laguntzea, jarduera fisikoa eta kirola egitea bultzatuz eta horien balioak sustatuz.

2. Onuradunak

Berrizko dirulaguntzen plan estrategikoarekin eta deialdi honen oinarri orokorarekin bat datozenak eta Berrizen egoitza duten eta kirol arloan jarduerak garatzen dituzten elkarteak, klubak; edo kirol arloan ekimenak garatzen dituen edonor.

3. Dirulaguntzaren xede diren proiektuak eta jarduerak

1. Dirulaguntzaren xede diren proiektuek bat etorri beharko dute, gutxienez, 2. puntuan jasotako helburuetako eta irizpideetako batekin. Jarraian zehazten diren jardueretatik bat edo gehiago jaso beharko dituzte (erakunde beraren eskaera bat baino gehiago izanez gero, proiektu bakar gisa baloratuko dira):

- Edozein kirol diziplinako banakako edo taldekako lehiaketaren batean parte hartzea.
- Udalerrian jarduera fisikoa eta kirola egitea sustatzeko jarduerak garatzea.
- Emakumeei, behar bereziak dituzten pertsonen edo adinekoei kirola egitera bideratutako jarduerak garatzea.
- Berrizko udalerrian kirol-ekitaldiak antolatzea, herriarentzat estrategikoak direnak. Ekitaldi batek dirulaguntzaren onuradun bakarria izan ahalko du. Erakunde batek baino gehiagok ekitaldi bererako eskaera bikoiztuz gero, erabaki beharko da zeini dagokion ekitaldi horren antolaketaren erantzukizuna. Aurkeztutako dokumentazioa eta eskatzailearen eta Udaleko kirol sailaren txostenak hartuko dira kontuan.
- Eskola kirola eta kirola euskaraz sustatzeko ekimenak egitea.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira jarraian zerrendatzen direnak; betiere dagokion ekitaldia egitea helburu badute eta ekitaldi horien aurrekontu zehatzetan agertzen badira

- Ekitaldia edo denboraldia antolatzeko eta garatzeko material beharrezkoa.
- Federazio gastuak (epaileak, fitxak, etab.)
- Monitorean eta entrenatzaileen soldatak.
- Asistentzia medikuko aseguruak, erantzukizun zibilekoak, edo ekitaldiaren ondoriozko jarduerak ziurtatzeko beste edozein.
- Beharrezkoa izanez gero, osasun-laguntzako zerbitzuak eta segurtasun-zerbitzuak.
- Garaikurrak, dominak edo antzeko sariak.
- Publizitatea eta zabalkundea (kartelak, liburuxkak, prentsa, etab.)
- Entrenatzaileen prestakuntza ikastaroak.



- Baita ekitaldiaren edo proiektuaren antolaketarekin eta gauzatzearekin zerikusia duten eta zerrenda honetan jasota ez dauden gastuak ere.
- 2. Bazterturiko proiektuak:
 - Guraso elkartearena.
 - Beste arlo batzuek diruz lagundutako tokiko jaien programazioaren barruan egiten diren kirol-jarduerak dituzten proiektuak.
 - Udal-aurrekontuko dirulaguntza izendunen bidez diruz lagundutako proiektuak (indarrean dagoen hitzarmenik ez dutenak izan ezik).

4. Balorazio irizpideak

1. Elkarteen edo klubaren bazkideak	Gehienez 8 puntu
4-10 bazkide	2 puntu
11-20 bazkide	4 puntu
21-30 bazkide	6 puntu
30 bazkide baino gehiago	8 puntu

2. Kirol sustapenerako jarduerak	Gehienez 12 puntu
Bi sexuetako taldeak izatea	6 puntu
Eskola adinean dauden kirolarientzat sustapen programak garatzea	4 puntu
Aniztasun funtzionala duten kolektiboentzako programa inklusiboak garatzea	2 puntu

3. Partaidetza Udalaren kirol sailarekin	Gehienez 6 puntu
Kirol sustapenerako ez ohiko jarduerak proposatzea	3 puntu
Udalak antolatutako kirol ekimenetan lankidetzat adieraztea	3 puntu

4. Entrenatzaileak edo begiraleak	Gehienez 9 puntu
Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin loturiko ikasketak izatea	6 puntu
Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin loturiko ikastaroak izatea	3 puntu

5. Kultura balioak	Gehienez 5 puntu
Kirol autoktonoak	5 puntu
Bertakoa ez den kirola	Puntu 1

5. Eskabidearen balorazioa

Kirol saileko teknikariak egingo du balorazioa eta dirulaguntza proposamena.

6. Betekizunak eta dokumentazio osagarria

Ezinbesteko baldintza da dokumentazio guztia behar bezala beteta egotea.

Oinarri orokorretan ageri den dokumentazioaz gain, erakunde eskatzaileek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Tokiko kirol- eta federazio-lizentzien zenbakia adierazten duen ziurtagiria, erakundeko lehendakariak edo idazkariak sinatua.
2. Bazkide eguneratuen edo ziurtagirien liburuaren kopia, erakundearen lehendakariak edo idazkariak sinatua, bazkide-kopurua adierazita.
3. Indarreko zuzendaritza-batzarraren akta-liburuaren kopia.



4. Teknikarien datuak; entitateko buruak edo idazkariak sinatutako ziurtagiriarekin.
5. Dagokion federazioaren ziurtagiria, erakundeko kirolariren batek lehiaketa nazionalean edo nazioartekoan izan duen banakako parte-hartzeari buruzkoa, izen-abizenak, kategoria, eskumena eta sailkapena adierazita.
6. Erakundeko kirolariren bat hautatua izanez gero, dagokion federazioaren ziurtagiria. Bertan, honako hauek jasoko dira: izen-abizenak, kategoria, eskumena eta sailkapena.
7. Eskabidearen helburu den proiektua edo jarduera azaltzen duen memoria.

**KULTURA JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILE ESPEZIFIKOAK****1. Xedea**

Oinarri hauen xedea da kultura-jarduerak garatzeko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko baldintzak eta jarraitu beharreko prozedura arautzea, honako helburu hauek lortzeko:

- Udalerrian kultura-jarduera bultzatzea.
- Kultura-erakundeei beren ekimenak lortzeko laguntza ematea.
- Kale giroa dinamizatzeko kultura-jarduerak sustatzea.
- Kulturaren bidez, behar bereziak dituzten pertsonen gizarteratzea bultzatzea.
- Kultura-ondarea zaintzen eta zabaltzen laguntzea.

2. Onuradunak

Berrizko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoarekin eta deialdi honen oinarri orokorarekin bat datozenak, egoitza Berrizen badute eta udalerriko kulturaren esparruan jarduerak egiten badituzte.

3. Diruz lagunduko diren jarduerak

Oinarri hauen arabera, honako eremu hauetako kultura sustapenarekin eta hedapenarekin zuzenean lotutako kultura-jarduerak diruz lagunduko dira:

- Arte Plastikoak sustatzea: erakusketak egitea..
- Literatura-sustapena. Liburua eta irakurketa sustatzea. Literatura-sorkuntza eta haren hedapena sustatzea.
- Arte eszenikoak: antzerkia, musika, dantza eta zirkua, zeinahi dela ere bere adierazpidea.
- Ikusizko eta ikus-entzunezko arteak.
- Folklorearen mantentze eta hedapena. Gure tradizioak, ohiturak eta hizkuntza ikertzea eta berreskuratzea.
- Kulturako antolaketa-egiturak prestatzeko proiektuak garatzera bideratutako jarduerak.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira aurreko esku-hartze arloetan sartzen ez diren jarduerak edo proiektuak, jaietako programetan jasota dauden jarduerak eta ikastetxeetako guraso-elkarteen proiektuak.

4. Balorazio irizpideak

1. Elkartearen edo klubaren bazkideak	Gehienez 10 puntu
4-10 bazkide	4 puntu
11-20 bazkide	7 puntu
21-30 bazkide	9 puntu
30 bazkide edo gehiago	10 puntu

2. Kultur sorkuntzetan euskarak duen presentzia	Gehienez 10 puntu
Programazioaren % 50 baino gutxiago euskaraz bada	3 puntu
Programazioaren %50 - % 80 bitarte euskaraz bada	6 puntu
Programazioaren %80 baino gehiago euskaraz bada	10 puntu



3. Proiektuaren garrantzia udalerraren testuinguruan	Gehienez 11 puntu
Izaera berritzailea	3 puntu
Arloko defizita estaltzen du	4 puntu
Kultur eskaintzari gehitzen dio	4 puntu

4. Balio kulturalak	Gehienez 9 puntu
Berrizko kultur ondareari buruzko proiektua	3 puntu
Kaleko kultur proiektua.	3 puntu
Gizarteratzeko kultura-proiektua.	3 puntu

5. Eskaeraren balorazioa

Kulturaren arloko teknikariek, oinarrien parametroei jarraituz, proiektuaren balorazioa eta dirulaguntzen proposamenak egingo dituzte.

6. Dokumentazio osagarria

Oinarri orokorretan eta eskabidean eskatutako dokumentazioaz gain, Kultura arloan honako informazio hau aurkeztu behar da:

- Proiektuaren deskribapena eta azalpen-memoria, honako hauek jasoko dituen:
- Kultura-interesa eta lortu nahi diren helburuak.
- Lekuak eta datak.
- Aurrekontu xehatua, erabilitako baliabide propioak barne.
- Eragina Berrizen.

**S1 ERANSKINA – ANEXO S1**

Eskaera - Jarduera sustatzea eta herritarren parte-hartzea sustatzeko dirulaguntzak.
Solicitud - Subvenciones para el fomento de la actividad y promoción de la participación ciudadana.

Eskatzailea - Solicitante		
Izen-abizenak/Izen soziala / Nombre y apellidos/Razón social		NAN/AIZ/IFZ – DNI/NIE/CIF
Administrazioarekiko ordezkaria – Representante ante la administración		
Izen-abizenak/Izen soziala / Nombre y apellidos/Razón social		NAN/AIZ/IFZ – DNI/NIE/CIF
Helbidea (Kalea, zenbakia eta pisua) – Dirección (Calle, número y piso)		
Posta kodea – Código postal	Udalerrria - Municipio	
Posta elektronikoa – Correo electrónico	Mugikorra - Móvil	Telefonoa - Teléfono

Dirulaguntza zer ariorako eskatzen duen – Solicita ayuda económica en la siguiente área	
Berdintasuna <i>Igualdad</i>	
Hezkuntza <i>Educación</i>	
Kirola <i>Deporte</i>	
Kultura <i>Cultura</i>	

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN HAU EGITEN DUT:	REALIZA LA SIGUIENTE DECLARACIÓN RESPONSABLE:
Laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzeko debekuari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan jasotako kasuetan ez egotea	<input type="checkbox"/> No encontrarse comprendido en ninguno de los supuestos recogidos en el artículo 13, apartados 2 y 3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, sobre la prohibición para la obtención de ayudas o subvenciones públicas
